

**DOKTORE BERRIAK DOKTOREGO ONDOKO UPV/EHUKO PRESTAKUNTZA PROGRAMETAN
SARTU ARTE KONTRATATZEKO DEIALDIA (DOKBERRI 2020-I)**

OHAR GARRANTZITSUA: BERRIRO HASIKO DA PROZEDURA IZAPIDETZEN

Berriro hasiko dira zenbatzen prozesu-epeak eta akzioen eta eskubideen preskripzio- eta iraungitze-epeak. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrendaren aurka errekurtsua jartzeko epea 2020ko ekainaren 4an hasiko da, egun hori barne.

Alarma egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 8. eta 10. artikuluek ondoriorik gabe utzi dute, 2020ko ekainaren 4az geroztik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bigarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritako prozesu-epeen eta akzioen eta eskubideen preskripzio- eta iraungitze-epeen etendura (463/2020 Errege Dekretua, alarma-egoera deklaritzen duena).

Ondorioz, 2020ko apirilaren 27an argitaratutako Dokberri 2020-I deialdiaren ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrendaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua edo, hala badagokio, berraztertze errekurtsua jartzeko epea 2020ko ekainaren 4an hasiko da kontatzen, egun hori barne.

Leioa, 2020ko ekainaren 1a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA